

Zuzendariaren hitzak

Kulturaz eta kultur gogoetaz gainezka datorren zenbakia da hau. Hamar artikulu idatzi eta zortzi artikulu grafiko. Eta, hortxe, urteak eman duena, edo azken hamarkadetek ekarri dutena edota euskal kulturak aroz aro egin duen bidea. Bi testu nagusirekin, ohiko legez. Biak elkarren artean desberdin –bata literatura sistematik eta bestea musikaren sistematik–, baina biak jarrera kritikoa abiatu dutela eta kulturarekiko maitasuna akuilu.

Irati Jimenez idazleak literaturaren aldeko aldarri ozena egiten du (beste behin) ‘Zabaldu ditugu begiak euskal literaturan?’ artikulu mamitsuan, eta euskal literaturaren ajeak eta beharrak azpimarratzen ditu: «irakurleekin akordatzan ez diren idazle gehiegi daudela eta idazle gehiegirekin akordatu ere egiten ez den sistema literario bat daukagula»; finen, «hotz egiten duela» literatura munduan eta «biluzik» gabiltzala.

Beñat Goitia *Benizze* musikariak «amildegirako bide zuzena» nabarmentzen du osatu duen ‘Euskal Musikagintza SL’ artikulu sakonean. Eta «interbentzioak berehalakoa» behar duela izan; izan ere, «komunitate minorizatu batek, biziraun nahi badu, ezin ditu kapitalismoaren parametroak bere horretan erreproduzitu»; baina, aitzitik, «eraikitzen ari garen

sistema kulturala kapitalismoaren parametroetan eraikitzen ari da, asimilatzen gaituen erdal sistema maioritarioaren parametro beretan».

Ondotik datoz zortzi artikuluko laburrago. Irati Elorrieta idazleak, Israelek Palestinaren aurkako genozidioan diharduen honetan, literaturan eta kulturean horrek dakarren eragin makurraz idazten digu Berlindik. Eta Irati Majuelo idazle eta literatur ikertzaileak gai bera jorratu du, besteak beste, baina Euskal Herritik. Guggenheim operazioak ekarri zuen Bilboren mundializazio-turistikazioa eta horrek euskarari egindako kaltea –ideologian, hiri paisaian, erabileran...– kontuan izanda, orain Urdaibai aldera zabaltze fasean sartu nahi duten honetan, Galder Unzalu antropologoak dio, Bilbon gertatu legez, «Bizkaian sinbolikoki euskararen prestigioa eta legitimitatea oraindik bizirik duten azken eremuetako gehienek kolpe definitiboa ez bada, ia definitiboa jasotzea» ekarriko duela.

Amets Aranguren musikariak komunitate eta kolektibotasun beharraz hitz egiten digu, alegia, kulturgintzan sinesten duen jendez osatutako *gu* batez. Mikel Ayllon antzerkigileak arte eszenikoen gaineko irakurketa dakar, tartean «euskal tragedia» –klasiko– bat: antzokietako euskarazko emanaldien orainaldi iluna. Garazi Ansa arte adituak, aurtan Basterretxea eta Txillidaren urteurrenak izaki, museo eta programazio nagusietan duten itzala are gehiago nola luzatu eta zabaltzen den nabarmentzen du. Iratiz Mateo bertsolariak Maider Arregi eta Saioa Alkaiza bertsolariek zer den aizu esatea eta zer ez eta nondik den zilegi kantatzea eta nondik ez azalduz emandako hitzaldiak aztertu ditu, muineko auzi bati erreparatuz.

Andoni Imaz kazetariak zinemagintzari eman dio errepasoa, tartean Oskar Alegriaren *Zinzindurrunkarratz* pelikula harribitxiari. Eta, kasualitatez, Itziar Ugartek egin ohi duen elkarrizketa labor-biziaren protagonista da Alegria bera, nola ez, poesiaren gainean poesiaz erantzuten poesiaz bizi ahal izateko. 2023ko euskal liburugintzaren gaineko azterketa Xabier Eizagirrek osatu du, eta esanguratsua da, azken urteetako joera berretsiz, inoiz baino liburua gehiago argitaratu zirela 2023an.

Artikulu grafikoak Mariñe Arbeok, Eider Eibarrek, Adurrek, Axpik, Expraik, Dani Fanok, Joseba Larratxek eta Maite Caballerok egin dituzte. Eta artikuluko fotografikoa, dagoeneko ohiko dugunez, Irantzu Pastor argazkilariak dakar azalera.